

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

68

2766/2024 EBAZPENA, abenduaren 10ekoa, Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Fernando García González jauna izendatzen den Alergologiako Zerbitzu Sanitarioiko buru aldi baterako, lau urte luzagarri, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko Erakunde Sanitario Integratuan.

Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari-gerentearen uztailaren 5eko 1517/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publikoa egin zen Bilbo-Basurtuko ESIko Alergologiako Zerbitzu Sanitarioiko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2024ko irailaren 16ko EHAA, 180. zk., eta 2024ko irailaren 23ko BOE, 230. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Fernando García González jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da pertsona hori izendatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko ESIko Alergologiako Zerbitzu Sanitarioiko buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Fernando García González jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bilbo-Basurtuko ESIko Alergologiako Zerbitzu Sanitarioiko buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta egun honetatik aurrera izango ditu ondorioak: 2024ko abenduaren 11.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ez baldin bada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen, eta, betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikulua ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espediente dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartatua aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Interesdunari eta Bilbo-Basurtuko ESIari Ebazpen honen berri ematea.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAA argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bilbo, 2024ko abenduaren 10a.

Bilbo-Basurtuko ESIko zuzendari-gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO.